



Beldurra

1

Idatzi beldurra ematen dizuten hiru gauza.

- Galdetu heldu bati zerk beldurtzen duen, eta idatzi hark esandako hiru gauza.

- Gauza berak al dira beldurtzen zaituztetenak? Zer duzue desberdin?

2

Lotu **beldurrarekin** zerikusia duen hitz bakoitza bere esanahiarekin.

- mesfidantza Arriskuren baten berri ematen duen seinalea.
- alarma Ikara, dardara.
- izua Uste onik eza, fidantziarik eza.
- ikaraldia Beldur larria eta bizia, bereziki zerbait egitea eragozten duena.

3

Irakurri Emoziotegiko 46. orrialdeko testua, eta erantzun galderai.

- Noiz sentitzen da beldurra?

- Zer desberdintasun daude beldurraren eta izuaren artean?

- Nola defini dezakegu izua?

4

Lotu hitz bakoitza bere esanahiarekin.

- **erne** Mina, sufrimendua, ondoeza, narriadura.
- **arriskua** Iratzarririk, bereziki zentzumenak edo buru gaitasunak.
- **kaltea** Zerbait arretaz egiaztatzea.
- **kontrola** Zerbait txarra gertatzeko aukera.

5

Nola deitzen zaio erraz beldurtzen den pertsonari? Ordenatu eta osatu. Gero, idatzi esaldi bat hitz hori erabiliz.

TREBLUDI → _____

6 Begiratu ereduari, eta osatu.

- Handi bihurtu → handitu
- bihurtu → txikiagotu
- Gizen bihurtu →
- Argal bihurtu →
- bihurtu → zabaldu
- Eder bihurtu →

7 Zer gertatzen zaio zure gorputzari beldurra sentitzen duzunean? Irakurri berriz Emoziotegiko 46. orrialdeko testua, eta zuzendu esaldiak.

- Zure begiak txikiagotu egiten dira ezer ikusi beharrik izan ez dezazun.

- Bihotzak odola bidaltzen du eztarrira, garrasi egin ahal izan dezazun.

8 Bilatu Emoziotegiko 46. orrialdeko testuan adierazpen hauen esanahi bera duen aditz bat:

hanka egin

itzuri

9 Irakurri egoera hau. Gero, aukeratu ondoen laburbiltzen duen esaldia.

Txikiagoa nintzenean, beldur handia ematen zidan etxea urak hartzeak. Amesgaiztoak ere izaten nituen. Aitari kontatu nion, eta hark gauza asko azaldu zizkidan. Azaldu zidan zergatik den zaila uholdeak gertatzea, baita halakorik gertatuko balitz nola jokatu genukeen ere.

Leire

- Leirek aitarengana jo behar du beldurra sentitzen duen bakoitzean.
- Leirek bere beldurra gainditu zuen, beldur hori eragiten zuen arrazoiari buruzko informazioa jasota.
- Leirek beldurra ematen dioten egoerak saihesten ditu.

10 Galdetu txikitatik ezagutzen zaituen norbaiti zerk ematen zizun beldurra, eta idatzi.

- Gainditu duzu beldur horietakoren bat? Nola lortu zenuen? Ez badakizu, galdetu ondo ezagutzen zaituen norbaiti.

11

Begiratu Emoziotegiko 46-47. orrialdeetako irudiari, eta erantzun.

- Zertan pentsatzen ari da txorimaloa?

- Uste duzu beldur dela? Zeren beldur?

12

Pentsa ezazu zu zaudela Emoziotegiko 46-47. orrialdeetan irudikatzen den egoeran. Beldur izango zinateke? Zeren beldur? Nola jokatuko zenuke?



Beldurra

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.